

Abuztuaren 18an  
**URTEAN ZEHARREKO 20. IGANDEA**

### Agurra

Bidean lagun dugun Kristo Jauna izan bedi zuekin.

### Sarrerako oharpena

Eukaristiarako bildu gara. Jainkoaren Erreinua eraikitzea bide erraza ez, baizik eta bide malkartsua dela esango zaigu gaur. Har dezagun batzen gaituena, izan gaitezen leialak bereizterainoko indarra duen eginkizunarekin.

### Damu-otoitza

Eukaristia elkarrekin ospatzeko gogo biziz, eska dezagun Jainkoaren erruki berritzailea:

- Jesus Jauna, zerutik jaitsitako ogia zarena. Erruki, Jauna.
  - Jesus Jauna, munduari bizia ematen dion ogia zarena. Kristo, erruki.
  - Jesus Jauna, betiko bizia ematen duen ogia zarena. Erruki, Jauna.
- Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

### Otoitza

**Ondasun miragarriak dituzu, Jauna, maite zaituztenentzat;  
 piztu gure bihotzetan zure maitasunaren garra,  
 Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,  
 iritsi ditzagun guk asma-ala baino handiagoak diren  
 Zuk agindutako ondasunak.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

### **Hitzaren liturgiari oharpena**

Egia hots egiteak zailtasuna dakar. Fedean eta Jesusen jarraipenean leial izateak, ordea, zorionbidea. Zailtasuna eta zoriona batera doaz, beraz. Entzun dezagun Jaunaren Hitza.

### **Lehenengo irakurgaia** (*Jr 38, 4-6. 8-10*)

Jeremias Profetaren liburutik

Egun haietan, honela zioten handikiek erregeri: «Hil egin behar da Jeremias hori; bere hitzez, herrian gelditzen diren gudamutilak eta herritar guztiak makaldu besterik ez baitu egiten. Gizon hau ez dabil herriaren on bila; hondamen bila dabil».

Honela erantzun zien Sedezias erregeak: «Hor duzue zeuen esku. Erregek ez dezake ezer egin zuen aurka».

Hartu zuten, beraz, Jeremias; eta Melkias errege-semblearen urtzuloan sartu zuten, gartzelako atarian; sokaz jaitsi zuten; urtzulo hartan ez zegoen urik, lohia baizik; eta horrela, Jeremias lohitan sarturik gelditu zen.

Atera zen Ebedmelek jauregitik, eta honela mintzatu zitzaion erregeri: «Errege, ene jauna: Gaizki egin dute gizon horiek, Jeremias profeta horrela erabiltzea; urtzuloan sartu baitute, eta han goseak hilko da»; (izan ere, ez zegoen ogirik hirian).

Orduan erregek honela agindu zion Ebedmelek etiopiarrari: «Hartu zeurekin hiru gizon, eta atera ezazu urtzulotik Jeremias profeta, hil baino lehen».

**Erantzun-salmoa** (*Sal 39, 2. 3. 4. 18*)

Ez e-gon, Jau - na, ni-gan-dik u - rrun; zu-re - a nau -  
zu, za - toz - kit la - gun.

-2

Itxaron dut Jaunagan, itxaron,  
makurtu zait eta nire oihua badu entzun. R/.

Atera nau herio-zulotik,  
zingira lohitsutik;  
harri gainean dizkit oinak tinkarazi,  
eta nire urratsak sendoarazi. R/.

Ahoan eresi berri bat ipini dit,  
gure Jainkoarentzat gorespen;  
hau ikusiz asko beldurtuko dira,  
eta Jaunagan izango dute itxaropidea. R/.

Ni gizagaixo eta behartsu naiz,  
baina Jauna da nitaz arduratzen;  
laguntzaile eta salbatzaile zaitut:  
ene Jainko, arren, ez luza. R/.

**Bigarren irakurgaia** (*Heb 12, 1-4*)

Hebrearrei egindako epistolatik

Senideok: Honenbeste testiguren hodei erdian gaudenez gero, utz ditzagun zama guztiak eta inguratzen gaituen bekatua; eta joan

gaitezen, eraman handiz, dagokigun borrokaldira, sinesmenaren iturri eta helburu den Jesus gogora erakarriz. Honek ere, izan zezakeen atseginarene ordez, gurutzeta eraman zuen, lotsakizuna gutxietsirik; eta orain Jaungoikoaren aulkiaren eskuin aldean jarririk dago.

Gogoan eduki ezazue, bada, halako erasoaldia bekatariengandik eraman zuena; ez etsi, ez galdu kemenik. Oraindik ez zarete odola isurtzeraino iritsi, bekatuaren aurkako borrokaldian.

### Aleluia (Jn 10, 27)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

Nire ardiek aditzen dute nire mintzoa  
 –dio Jaunak–;  
 Nik ezagutzen ditut,  
 eta haiek ondotik datozkit. R/.

### Ebanjelioa (Lk 12, 49-53)

#### Homiliarako argibideak

*Lurrari su emateko etorria naiz*

Frantzisko Aita Santuak maiz hitz egiten du **istilua sortzeaz**, gaur egungo munduan Eliza erabat kaltegabea eta hutsala izan dadin egiten duen ongizatearen kultura leun honetan lo ez jarraitzeaz. Pobreen Eliza izatea nahi duela esanda, Aita Santua ez da ari

iraultza bortitz baterako deia egiten, bihotzetan gure mundua eraldatzea ekarriko duen aldaketa bat eragitera baizik. Jesusek berak hasi zuen barne iraultza hori, eta honela esan zuen: "Lurrean sua jartzera etorri naiz" (*Lk 12, 49-53*). Su garbitzailea behar da ustelkeria guztia amaitzeko.

Biblian, **Jainkoaren epaiketaren** irudia da sua. Jainkoa agertzen denean, justizia ezartzen du. Jerusalemera bidean oinez doan Jesusen nekaldian eta piztueran agertuko da batik bat Jainkoa. Sufrimenduaren bataioan murgiltzeko irrikaz doa. Uretan eta Espirituan egiten den bataio kristaua, suarekin ere adierazten dena, Jesusen heriotza eta piztueran parte hartzea da. Konplikaziorik gabeko bizitza hauta zezakeen Jesusek, baina horren ordeztu, gurutzatzea hartu zuen, horrek ekarriko zituen desohorearekin eta zitalkeriarekin kezkatu gabe. Sua eta ura izango dira Jainkoaren epaiketan herria purifikatu eta salbatuko duten elementuak. **Barkamen eta errukizko** Jainko modura agertuko da Hura.

Gurutziltzatu eta berpiztuaren aurrean, horren alde horren kontra agertuko beharko dute pertsonak. Lehen belaunaldiak familiaren erlijio tradizionala utzi eta kristautasunera bihurtzeak eragiten zuen banaketa bizi behar izan zuten. Alde horretatik, Jesus ez da etorri **bake erraza** ekartzera, gaur egun familietan bilatzen dena bezalako. Familiaren bakearen izenean, familiarterako elkarbizitzari zentzua ematen dioten balioen inguruko eztabaida saihesten da. Familia arteko harremanen banaketaren arrazoi da Jesus.

Bat ez da kristau jaiotzen, **erabaki pertsonal** baten ondorioz bihurtzen da bat kristau, eta erabaki samingarria da askotan, zalantzan jartzen baitu jasotako herentzia kulturala. Jesusen aldeko hautuak bekatarien aurkaritza jasan beharko du askotan, familia barruan bertan, akaso. Askotan, gurasoek kentzen diete seme-alabei burutik kristau edo apaiz bokazioari jarraitzeko erabakia, eta bizitza

aspergarri edo garrantzi sozialik gabeko bizibide gisara irudikatzen diete.

Jesusengan mantendu behar dugu beti gure begirada, finko, harekin hasi eta osatzen baita gure fedea. Hura dugu helmuga, eta ez dugu begi bistatik galdu behar. Berdin da gure senide edo lagunik onenek zer dioten. Ez gara sekula bakarrik egongo Jesusi jarraitzeko erabaki ausart horretan. Jada helmugara iritsi den **lekuko** fededunen **multzo handia** begira dugu, eta gu animatu nahian ari da (*Heb 12,1-4*).

Herri profetikoa da geurea, gai da **Jainkoaren nahia** une oro jakiteko. Ez da beti eroso izango praktikan jartzea. Profetek, adibide ona dugu Jeremias, asko sufritu behar izan zuten herriaren aldetik, Jainkoaren eskakizunak historiako une jakin guztietan aldarrikatzeagatik (*Jr 38,4-10*). Haren irudiak Jesusena iragartzen du, hura ere baztertu egin baitzuen herriak, handik botako baitute. Eukaristiak Jesusen eta ebanjelioaren alde jartzera eraman gaitzala.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: aurkez diezazkiogun gure otoitzak Jaunari, eta eska diezaiozun entzun ditzala gure bihotzeko errekuak:

- Eska dezagun gaixorik daudelako edota senideen zerbitzura daudelako igandea ospatzera etorri ezin dutenentzat; ospakizun honetan parte hartzerik ez badute ere, Jaunaren poza falta ez dezaten.
- Eska dezagun behartsuenen zerbitzura bizitza eskaintzen dutenentzat; senideekin partekatzen dutena barne-poz eta alaitasun bihur dadin beraiengan.
- Eska dezagun bidean edota etxetik urrun direnentzat; Jainkoak babes ditzan eta barne-bizitza zaintzeaz ahaztu ez daitezen.

—Eska dezagun guretzat; fedean aurrera egin dezagun eta on egiteko gogoia gero eta handiagoa izan dadin gudan.

Eztabaida-ikur den Zure Semearen gurutzearen bidez bihotz askoren jarrera agertzen diguzun Jauna, entzun gure otoitzak eta ez utzi gizadiari Zure egiatik eta graziatik aldentzen, baizik eta aldian aldiko ezaugarrietan zu aurki zaitzatela eta salbamen bidean ibili. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Jainko Jauna, sakramentu honetan Kristorekin bat eginik,  
zure errukiari apalik deika gaude:  
lur honetan Kristoren antzeko izanik,  
zeruetan Haren lagun izatea iritsi dezagula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**